

# ZEINTZUK DIRA ETORKIZUNEKO NEKAZARIAK?

## Nekazaritza-erreleboa eta esperientzien irakaspenak

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

### 1. SAIOA- Jardunaldia: Testuingurua eta irakaspenak. Abenduak 14 (Saio irekia)

16.00 Harrera

16.15 Jardunaldiaren aurkezpena

16.30-17:00 "Erreleboaren testuingurua maila globalean eta Euskadin": Zoe Brent-TNI (gaztelera)

17.00-17:30 EAEko "Gaztenek programaren balorazioa": Eduardo Malagon-UPV/EHU

17.30-18:30 Mahai ingurua: Etorkizunerako zein erreleborako tresna behar ditugu? Esperientzietatik edaten

- 15' Red de Espacios Test Agrarios (RETA) - Neus Monllor eta Laura Megias (gaztelera)
- 15' Familiak kanpoko errelebo esperientzia bat: Eneko Solana (Ariztizabal Baserria)
- 15' Familiako errelebo baten esperientzia bat: Miriam Arrizabalaga (Doniene Baserria)
- 15' Erreleboarekin aurrera jarraitu ez duen esperientzia bat

18.30 Galderak eta solasaldia.

19.00 Itxiera

Izena emateko jardunaldi irekira mesedez sakatu ondorengo estekan:  
[Jardunaldirako izen emate orria](#)

### 2. SAIOA- Tailerra: Erreleboaren etorkizuna gure inguruan aktibatzen. Abenduak 17 (Saio itxia, gonbidapenarekin)

9:15 Saioaren aurkezpena

9:30-10:10 Bi esperientzia

inspiratzaileak:

- Trebatu: Kattalin Sainte-Marie (Ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldeko laborantzako trebagunea).
- Haztegia: Juan Mari Totorika (Urkiola eta Lea Artibaiko Landa Garapen Elkarteetako zuzendaria)

10:10-11:10 "Erreleborako ekimen bat martxan jarri nahi dut" dinamika.

11:10-11:45 Dinamikaren ondorioak eta solasaldia

11.45 Itxiera

Laguntzaileak:



## JARDUNALDIEN ERRELATORIA TXOSTENA

Donostian, 2020ko abenduak 21

## SARRERA

Euskadin populazio aktiboaren %1ak soilik jarduten du nekazaritzan eta azken urteetan nekazaritza lanetan hasi diren pertsonen kopurua jaisten doa era kezkagarri batean.

- *Zergatik ez da erakargarria edo bideragarria nekazaritzan lan egitea?*
- *Eta zein eragin izan dute politika publikoek?*
- *Nola ziurtatu daiteke nekazaritza erreleboa elikadura osasuntsu eta jasangarriaren eskubidea bermatzeko?*
- *Zein tresna eraginkor behar ditugu erreleboa bermatzeko?*
- *Ze pauso eman eskualdean erreleborako ekimen bat martxan jartzeko?*

Galdera hauek abiapuntu hartuta Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV/EHU) nekazaritza erreleboari buruzko bi jardunaldi antolatu genituen joan den **abenduak 14 eta 17**an. Lehenengo egunean edonorentzat irekia izango zen, nekazal sektorearen testuinguruaren irakurketa eginez, bai ikerketako datuak zein esperientzia ezberdinen ezagutza mahai ingurura ekarriz. Bigarren eguneko saioa berriz itxia izan zen, Euskal Herrian erreleboa sustatu nahi duten erakunde publikoei zuzendua, euren eremu eta errealitatea kontuan izanik erreleboa nola landu dezaketen aztertzeke.

## ERRELATORIA

Zentzu horretan, **lehenengo eguneko saioa** gehiago balio izan zigun erreleboaren inguruko diagnostiko bat egiteko, bai ikerketatik eta datuen azterketatik eta baita ere esperientzia praktikotik.

Alde horretatik, Zoe Brent<sup>1</sup> "Erreleboaren kontextualizazioa maila globalean eta Euskadin" izeneko aurkezpena egin zuen. Bertan, erreleboaren gaia Elikadura Sistemaren krisi orokortu baten barnean aztertu beharra dagoela azpimarratzen

---

<sup>1</sup> Transnational Institute (TNI)-ko Nekazaritza Justizia taldeko ikertzailea da, eta elikagaiekin, ura eta lurrarekin lotura duten politiken azterketan dihardu. Gaur egun doktoretza egiten ari da Hagako International Institute of Social Studies (ISS) ikerketa institutuan.

du, gero eta gehiago ustiatutako lan-indarrean oinarritutako ekoizpen-joera bateranzko oinarriak baitaude. Beraz, belaunaldien arteko errelebo krisia, ekoizpen intentsiboa eta giza harremanak uztartzen dituen sistema batean kokatu beharra dugu, testuinguru honek ez baitu laguntzen nekazari belaunaldi berri baten garapenean. Begirada sistemiko honetan oinarrituz, belaunaldi erreleboak ekoizteko beste modu bat proposatu behar du, krisi egoera hau aldatu ahal izateko. Zoe-ren hitzetan, honek aldaketa batzuk proposatzen ditu sektorearen eta administrazioaren arteko harremanetan, marko kontzeptual konkretu batean jaso ahal direnak: **Errekonozimendua**, zeintzuk identifikatzen ditugun etorkizuneko baserritar gisa aztertuz; **Ordezkaritza**, nola hartzen diren erabakiak eta nor dago eta nor egon behar duen nekazaritza politiken eta elikadura politiken erabaki guneetan; eta **Bir-banaketa**, nola banatzen diren baliabideak lehen sektorean eta zenbateraino laguntzen duten tokiko ekonomia egituratzeko.

Honekin batera, Eduardo Malagonek<sup>2</sup> "Euskal Autonomia Erkidegoko Gaztenek programaren balorazioa" egin zigun. Gaztenek programa 2004an sortzen da ustiategien desagerpen prozesuari, eta nekazaritza populazioaren zaharkitzeari erantzuteko (1999an, ustiapen titularren %11,3ak soilik zituen 40 urte baino gutxiago, eta %39,7ak zituen 65 urte baino gehiago). 2009an ere egoera ez zen batera hobetu, 40 urte baino gutxiagoko ustiapen titularren kopurua %8,7ra jaitsi zen, eta 65 urtetik gorako titularrena berriz, %35,4ra. Beraz, Gaztenek programa Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek sustatuta sortzen da gazteen instalakuntza ahalbidetzeko helburuarekin. Hala ere, Gaztenek-en helburua ez da soilik izan instalatutako nekazari laguntza ematea, bestelako neurriak ere jasotzen ditu: proiektuen diseinua eta aholkularitza, sentsibilizazioa, lurra eskuratzeko aukerak erraztea, landa eremuak eta bizitza kalitatea hobetzea, edo bestelako jarduera osagarriak, horien artean sektorearen errekonozimenduarekin zerikusia duten beste neurri batzuk. Eduardo Malagonek, egindako ebaluazio lanen ondorioz, bi Landa Garapen Plan aztertu ditu. Ondorioz, 2007-2013 programan 342 instalazio berri ahalbidetu ziren eta egindako inbertsioa 24 milioi eurotako izan zen. Instalatutako proiektuetatik bi herenak abeltzaintzan (haragi behi edo ardiak), baratzezaintzan eta esne behietan oinarritu ziren. Proiektu guztietatik 9 bakarrik egon ziren aurreratutako erretiroei lotuta, hau da, %2,6a. 2015-2019 programan berriz, 272 instalazio berri izan dira. Batik bat baratzezaintzan, jarduera misto batean eta abeltzaintzan

---

<sup>2</sup> Politika Publiko eta Historia Ekonomiko Saileko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV) eta Hegoa Institutuko kidea da, eta Garapen ikasketetan doktorea. Bere ikerketa esparrua Nekazaritza, Landa Garapen Politikak eta Elikadura Sistema Alternatiboetan oinarritua izan da, eta esparru hauetan aplikatutako Politika Publikoen ebaluazioan.

(behi-haragi edo ardiak) eman dira instalazio proiektu berriak. Proiektu hauen bi herenak 5ha baino gutxiago izan dituzte, batik bat baratzezaintzak izan duen protagonismoa lekuko. Bestetik, proiektu bakoitzak batz bestea jaso duen finantzazioa 26.000 ingurukoa izan da.

Bestalde, instalazioen prozesuei erreparatuta, nekazaritzan instalatzeko prozesua bizi izan duten hiru proiektuen azalpenak jaso genituen, prozesu hauetatik ateratako irakaspen, oztopo edo erronka nagusiak aurkeztu zituzten.

Batetik, Miriam Arrizabalaga, Doniene baserriko baratzezaina da, familia barneko belaunaldi arteko errelebo esperientzia batetik dator. Bi ahizpak jarduerari ekin ziotenean poliki-poliki baserria espezializatzen joan ziren, batik bat baratzezaintza ekologikora. Hasieran jarduerari neurria hartzearen zailtasunez jardun zuen, nahiz eta hasieratik ekoizpen zikloak baserrian bertan ixteko nahiarekin abiatu, denborarekin zailtasunak aurkitu eta proiektua bakoitzaren mugetara egokitzeko irakaspena garrantzitsua dela azaldu zuen. Gizartearen aldetik jasotako zalantza edo mesfidantzei erantzuteko beharrak ere markatu zituztela lehen pauso haiek esan zigun.

Bigarrenik, Eneko Solana, Ezkioko Ariztizabal baserrian dihardu familiartekoekin frutagintzan, okin moduan eta hezkuntza proiektu bat ere martxan dute. Familia kanpoko erreleboa jaso berri dute, Gaztenek proiektuaren bitartez. Hezkuntza proiektua oso aberatsa dela dio, baserriko lanetatik atera eta kanpoko jendearekin harremantzeko aukera ematen baitiote.

Hirugarrenik, Ekaitz Mazusta izan zen gure artean, Zuberoko Bildoze herritik, erreleboarekin aurrera jarraitu ez duen esperientzia baten bizipenak partekatu zizkigun.

Azkenik, eta jardunaldien bigarren egunean izango genuen gaien aurrerapen gisa, Neus Monllor<sup>3</sup> RETA<sup>4</sup> proiektua aurkeztu zuen, lehen aipatutako Elikadura Sistemaren paradigma aldaketa honetan kokatzen den eta nekazaritzako instalazio berriei jarraipena eman edo laguntzeko tresnak eskaintzea helburua duen proiektua. Nolabait agente berriak sektorean instalatzeko prozesuak errazteko programa bat da. RETAren bitartez, euskarri fisikoez gain, legezko euskarriak eta euskarri integralak (akonpainamendua, prestakuntza, aholkularitza) ere eskaintzen dira. RETA talde operatiboa 2018an sortu zen, eta

---

<sup>3</sup> Aholkulari agrosoziala da eta Red de Espacios Test Agrarios (RETA) taldearen koordinatzailea.

<sup>4</sup> <https://espaciostestagrarios.org/>

2019-2020 urte bitartean 8 proiektu berri martxan jarri dira, hauetako bat Bizkaian kokatzen den Haztegia proiektua da.

**Bigarren jardunaldia berriz**, Abenduaren 17an ospatu da, eta bi esperientzia inspiratzaile izan ziren gonbidatuak: Iparraldeko trebatu eta Bizkaiko Haztegia.

Kattalin Sainte-Marie<sup>5</sup> Trebatu, laborantza herrikoian trebatzeko tresna, aurkeztu zuen. 2016an sortuz zen Ipar Euskal Herrian eta 10 kidek osatzen dute: sei laborantza elkartek (Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarte, Lurzaindia, ELB sindikatua, EHLG, BLE eta AFOG), CFAA/CFPPA laborantza formakuntza elkarte, Inter-AMAP Pays Basque kontsumitzaile sarea, CAE Interstices Sud Ekonomia sozial eta eraldatzailea eta Euskal Hirigune Elkargoa. Trebaturen helburua laborari belaunaldiak eraberritzea da, instalazioak ahalbidetu eta transmisioa erraztea. Betiere, laborantza sektoretik kanpo datozen nekazariei arreta jarritz. Horretarako, laborantzan instalatu nahi dutenen ibilbidea segurtatu asmo du, formakuntza teorikoa eta instalakuntzaren arteko prozesua bermatu. Aintzat hartzen da instalatu nahi duenak atzerapausoa emateko aukera izatea, eta positibotzat jotzen da instalazio burutu ez bada ere, entsegatzeko aukera izan eta prozesu horretatik ikasi izatea. Elkartearen helburua, nagusiki, hurbileko laborantza berriz bultzatzea da, tokiko enplegua sortu, eta laborantzako lurrak zaindu eta babestea.

Trebakuntza Guneek eredu desberdinetako erreleboak ematea ahalbidetzen dute. Batetik, instalazio progresibo bat bermatzea, gustukoa den eta bakoitzaren egoerara egokitzen den proiektua garatuz, eta ekonomikoki zein humanoki bizigarria den proiektua landuz. Horrez gain, nekazal proiektuen transmisioan laguntzen du, bi aldean arteko harremanean bitartekaritza eta denbora baldintza egokiak ziurtatuz. Bestetik, familiarteko erreleboan ekoizpen sistema guztia aldatzen bada, edo tailer berri bat sortzen bada, familiaren instalazio bermatzeko medioak ezartzen ditu. Eta azkenik, ekoizpen berritzaileak, edo gutxi garatutako sektoreetan proiektuak martxan jartzen laguntzen du.

Orain arteko ibilbidean, 11 nekazari pasa dira Trebatutik, hauetatik 6 trebatzen ari badira ere, 4 instalatuak daude, eta batek berriz ber-orientatzea erabaki zuen. Trebatzeko prozesua abiatzeko laborariei hainbat baldintza eskatzen zaizkie, diploma edo sektorean esperientzia minimo bat izatea, lan prekarietatea oztopatzeko lan sari minimo bat izatea, eta gastu zehatz batzuk egiteko aukera izatea (baratzezaintzaren kasuan, 5.000 bat euro kalkulaten dira pertsonako).

---

<sup>5</sup> Ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldeko laborantzako Trebaguneko teknikaria da.

Proiektu berrien instalazioa bermatzeko, Trebatuk lau funtzioa zehatz betetzen ditu. Alde batetik, inkubazio funtzioa betetzen du (proiektu berria legalki babestuz), bestetik mintegi funtzioa (ekoizpenerako baliabideak ahalbidetuz), laguntza eta segipen funtzioa ere betetzen du, eta azkenik animazio eta koordinazioa (komunikazio tresnak garatzea, elkarrekin barneko animazioa, trebagune berrien garapena, eragile desberdinen arteko koordinazioa, partaidetzaren garapena, etab.).

Bestalde, bigarren esperientzia inspiratzaileari dagokionez, Juan Mari Totorikak<sup>6</sup> Haztegia proiektua aurkeztu zuen. 2020ko uztailean Haztegia proiektua martxan jarri berri dute, Nekazaritza Trebakuntza Guneen Sarea (RETA) proiektuaren barnean. Beraz, uda aurretik talde eragile bat sortzeari ekin zioten, eta abenduan, prozesuaren Ekintza Planaren zirriborroa adostu asmo dute. Durangaldean eta Lea-Artibain, nekazaritzako trebakuntza gune bat aurreikusten duen programa da Haztegia, bi LGE elkarlanean dihardute nekazaritza sektorean pertsona berriak instalatzea helburu duen programa honetan. Bai Lea-Artibai eta Durangaldean, elkarrekin, beste entitate batzuekin edo bakarka Elikadura Estrategiak diseinatzeko ahalegindu dira, eta horretan beti agertzen da ekoizpena modu batean hobetzea edo handitzea. Momentu hauetan udalak konprometitu dira espazio hauek ahalbidetzeko baliabideak jartzera, eta Bizkaiko Aldundiaren finantzazioa ere lortu dute. Trebakuntza Gunea, espazio bat da non pertsonak modu progresibo batean lortuko duten baldintza errealetara egokitzea euren proiektua. Hortugintza ekologikoan oinarritutako proiektuak babesteko asmoa dutela adierazi zuen Juan Marik.

RETA proiektuan ikasitakoan oinarrituz eta Trebatu bezalako proiektuak erreferentziatuz hartuz, euskarri fisikoak, legalak eta euskarri integralak eskaini asmo ditu, gobernantza eredu sendo bat diseinatu eta garatuz. Zentzu honetan, proiektuaren hastapena talde eragilearen eraketan oinarritzen da, kolaboratzaile eta aktore klabeak identifikatu eta proiektuan integratzeko ahaleginari ekin diote.

Haztegian identifikatzen diren erronken artean, ekintzaileak topatzea eta euskarri legal interesgarriena aurkitzea nabarmendu dira. Bestetik, Landa Garapen Programa berrian gune hauek duten garrantzia aitortu eta hasierako inbertsioetarako finantzaketak bermatzea espero da. Inguruko laborarien artean espazio hauek txertatu eta tokiko laguntza sare on bat lantzea ere bada erronketako bat. Baita proiektuen parte hartuko duten nekazariak

---

<sup>6</sup> Urkiola eta Lea-Artibaiko Landa Garapen Elkarteetako zuzendaria da.

harremanetan jarri eta artikulatzea ere. Horrez gain, merkaturatze sare on bat garatu eta proiektua modu egokian komunikatu eta gizarteratzeko tresnak lantzea ere nabarmendu dira proiektuaren erronken artean.

## SISTEMATIZAZIOAREN EMAITZAK

Bi saio hauetan jasotako hausnarketa guzti hauek hainbat elementuen inguruan **sistematizatzen joan ginen hitz-hartzeetan zehar**. Horrela nekazaritza erreleboaren inguruan jasotako gogoetak kontuan izanik ondorengo ardatzak (irudia 1) kontuan izanik antolatu ziren gogoeta guztiak:

Irudi 1:  
**Nekazaritza erreleboaren inguruan landutako gai-ardatzaren gogoetak**




---

### GENEROA

---

Zoe Brent-ek argi utzi zuen emakumeek funtsezko rola betetzen dutela lehen sektorean. Gainera, azken urteetan Euskadiko nekazal proiektu kopurua erori egin den arren, emakume titularren kopurua denboran mantendu egin dela dirudi.

Hala ere, Gaztenek proiektuan sartzen diren titularren artean, emakumezkoak gutxiengo bat dira. 2007-2013 artean, Gaztenek laguntza jaso zuten proiektuen %35ean izan dira emakumeak jardueraren titular, 2015-2019 epealdiko planean berriz proiektuen %32an. Trebatu programari dagokionean, 11 parte hartzaileetatik 4 izan dira emakumeak.

Familiarteko erreleboa jaso duen testigantzak azaldu digu hasiera batean behintzat kanpotik mesfidantza nabari izan zutela emakumeak zirelako proiektuaren bultzatzaileak. Egiten den lana erakutsi edo demostratu beharra izan dute, gaitasunik izango ez zutela pentsatzen zuen gizarteari. Soldataren inguruan ere, baserriko diru sarrerak murriztagoak izanagatik, emakumeentzako egokiagoak izango direnaren ustea, edo baserritik kanpo lana aurkitu ezinaren ondorioz hartutako hautua izan denaren ustea nabari izan dute.

Bestetik, emakumeak izanagatik sektorearekin harremantzeko zailtasunak ere mahai gaineratu dira. Azpisektore desberdinetakoak izateaz gain, emakume eta gazteak izateagatik, inguruko abeltzainekin harremanetan jartzeko orduan mugak sortu izan direla adierazi dute.

Arlo kulturalean bezala, administrazio publikoaren partetik nabari den errekonozimendu falta nabarmendu da. Etorkizuneko nekazariak, baserri familia batetik kanpokoak, hiri eremukoak, eredu agroekologikoan ideia berritzaileak izan ditzaketen subjektuak, edota emakumeak izan daitezkeela pentsatzea kosta egiten da. Zentzu honetan, etorkinek ere sektorean izan ahal duten rola inguruko hausnarketa falta dela adierazi zigun Zoe-k. Ikusten al ditugu profil hauek etorkizuneko baserritar moduan?

---

## **ZAINTZA (BIZIGARRITASUNA)**

---

Errelebo prozesuan babesa izatearen garrantzia azpimarratu zen. Bakarrik instalatzeak dakartzan zailtasunei aurre egiteko, modu kolektiboan proiektua planteatu edo inguruan antzeko egoeran dauden beste nekazariekin elkarbanatzearen beharra nabarmendu zen. Bai Doniene baserriko erreleboa, zein Aritzabal baserrikoa, familian jasotako proiektuak izan dira. Azken proiektu honek, babesten zaituen ingurune bat aurkitzearen beharra azaldu zuen, eta kasu honetan Biolur eta Lurgintzatik jasotako babesa nabarmendu.

Sektorera jendea gerturatzeko zailtasunetako bat bakardade edo babes falta honetan dagoela adierazi zen, normalean nekazal bizimodua oso idilikoa, edo, bestela, oso gogorra dela kontsideratzen delako. Aritzabal baserriko



nekazariak, erreleboa hartzeko arrazoi nagusien artean, bizimodu aldaketa, bizirik sentitzeko beharra, naturarekin sortzen den harremana edo proiektuaren inguruko erabakiak hartzeko gaitasuna aipatu zituen. Jardueraren bizigarritasuna bermatzeko ezinbesteko gako bihurtzen da proiektu barneko harremanak zaintzea.

Zentzu honetan, familia kanpoko erreleboa gauzatzen den kasuetan behintzat, baserri jabearen eta instalatzera doan gaztearen artean sortzen den elkarbizitza, tratua, eta bizikidetzarako zailtasunak ere identifikatu ziren.

---

## **AKONPAINAMENDU EMOZIONALA**

---

Aurreko puntuari lotuta, transmisioa modu seguruan emateko prozesuaren zainketa bermatuko duen figura edo eragile baten beharra identifikatu zen. Badirudi familia kanpoko errelebo batekin hastean, bi parteek abiapuntua eta prozesuaren amaiera konpartitzen dituztela, baina bidean sentitzen diren ezinegonak partekatzeko espazioak falta izan dira. Beraz, momentu batean ezinegon horiek lehertu izan dute.

Batik bat, nekazariak lurrari dioten lotura baino, abeltzainek animaliekin duten harremana izan daitezkeela ere ezinegon horiek sortzearen arrazoia aipatu zen. Badirudi zail egiten dela bizi osoan zehar animaliak zaintzeko modu hori beste norbaiten esku uztea eta beste lan egiteko modu batzuk ulertzea. Ulertzintasun egoera hauek lanketa bat eskatzen dute, bakoitzaren emozioak konpartitzeko beharra, eta badirudi errelebo prozesuetan antzeko figura baten falta sumatzen dela.

---

## **FORMAZIOA ETA AKONPAINAMENDU FORMATIBOA**

---

Hizlari guztien hitzetan, formakuntza iraunkorra erreleboa segurtasun osoz emateko ezinbesteko gakotzat kontsideratzen da. Bai Gaztenek programak, eta bai RETA proiektuak ere lehentasunezko neurritzat hartzen dute.

Gaztenek ez da laguntza ekonomiko bat ematera murrizten, beste hainbat neurri ere barneratzen ditu: proiektuaren diseinu eta aholkularitza, formazioa, 36 hilabeteko tutorizazio prozesu batean oinarritzen dena.

RETAK berriz, nekazaritza sektorera eragile berriak batzeko helburuz, aholkularitza, prestakuntza eta laguntzan oinarritutako prozesu progresiboa

bermatzen du. Betiere, irakaspenean oinarritutako prozesu bezala planteatzen da proiektua, eta horretarako ibilbidearen gobernantza eredu zaindu beharreko aspektu bihurtzen da. Prozesua denbora luzean planteatzeak, erabakiak poliki-poliki hartzea ahalbidetzen du eta formakuntza fasearen baitan beharrak identifikatzen joatea. Haztegia proiektuaren baitan, akonpainamendua Haztegiko tutorearen bitartez eta beste baserri baten tutoretzaren bitartez gauzatuko da. Aholkularitza hau agronomikoa, enpresa mailako eta emozionala izatea aurreikusten da. Formazioa etengabekoa izango da, eta Derioko Nekazal Eskola eta Haziren bitartez prestatuko da. Aldi berean esperientzia praktikoa ere eskatuko da.

Trebatu proiekturen kasuan, segipen funtzioa formatu desberdinetan garatzen da. Batetik jarraipen orokor bat egiten da, hitzordu erregularren bitartez, eta sostengu administratibo eta kontabilitate mailakoa eskainiz. Bestetik jarraipen teknikoak egiten da, Trebatuko kideak diren laborari elkarteek burutzen dutena. Horrez gain, tutoretzak, formakuntzak eta integrazioa sustatzen dira. Zentzu honetan, lekuko sostengu taldeak sortzen dira, inguruko bizilagunek, hautetsiek edo bezeroek osatuak, nekazaria hautatutako eskualdean errotu ahal izateko. Aurten gainera beste formakuntza bat sortu berri da, laborantza sortzaile ibilbidea, trebatzearen aurreko fasean kokatuko litzatekeena. Kasu honetan, nekazari berriak lurraldeko etxaldeetan egongo dira ikastaroaren %80an, hilabetean behin enpresa formakuntza bat egingo du, beharren arabera formakuntza teknikoak jasoko ditu, eta proiektua garatzen laguntzeko animatzaile eta nekazari tutore bat izango du.

Erreleboa jaso duten nekazarien hitzetan berriz, badira bizi osoko baserri lanetatik asko ikasi dutenak. Hala ere, nekazarietako batek jarduera bere gain hartu ondoren, eta ekologikora salto egitea erabaki ondoren, eredu ekologikoan oinarritutako formakuntza zehatzak aurkitzea erraza ez dela adierazi ziguten. Gainera, baserriko lanek asko baldintzatzen dute formakuntza jarraitu bat garatzeko aukera. Zentzu honetan, formakuntza programak sektorearen errealitatera egokitzeko dauden zailtasunez hitz egin du. Hala ere, Biolurrek<sup>7</sup> betetzen duen funtzioari garrantzia eman zioten. Familia kanpoko erreleboa jaso duen nekazariak ere, Biolurrenaholkularitza lana nabarmendu du, baita aktibitatearen transmisio prozesuan, jarduera uztera doan familiarekin batera proiektuaren martxa ikasteko aukera ere balorean jarri du.

---

<sup>7</sup> Biolur, Nekazaritza ekologikoa sustatzen duen Gipuzkoako elkarte da: [www.biolur.eus](http://www.biolur.eus)

---

## **ALDERDI JURIDIKOA**

---

Batetik, erreleboa ematen den momentuan, Ariztizabal baserriaren kasuan behintzat, inguruan antzeko errelebo eredurik ez egoteak, eta bestelako erreferentziarik ez edukitzeak, nahiko itsumustuan ibiltzea ekarri duela adierazi zigun Enekok. Inbertsioak edo kontratuak egiteko orduan, alderdi horrekin lagunduko duen norbait aurkitzeko zailtasunekin aurkitu dira.

Bestetik, baserrian jaiotakoa izanda ere, badirudi jardueraren alderdi administratiboa kudeatzeko orduan, kosta egiten dela sektorea nola antolatuta dagoen ulertzea. Zentzu honetan, sektoreko eragile bakoitzak zein funtzioa betetzen dituen jakitea, eta eragiketa administratibo bakoitzean non eta zelan egin behar den asmatzea asko konplikutzen da. Buru-haustekak dakartzan gai bat dela planteatzen da.

Iparraldean, Trebatu programak inkubatze funtzioa betetzen du nekazal proiektuei babes juridikoa eskaintze aldera. Instalatzeko interesa duen nekazaria CAPE kontratu bidez trebatzen da, modu honetan nekazariak Trebatu enpresa zenbakia erabiltzen du ekoiztu eta saltzeko. CAPE kontratuaren bitartez trebatzen denak estatuz bat du eta lan istripuen aurrean ere babestua da, aseguru soziala ordaintzen baita. Horrez gain, jardueraren kontabilitatea Trebatu enpresaren kontabilitatean integratzen da eta BEZ deklarazioa elkartetik egiten da. CAPE kontratuak eskubide batzuk emateaz gain egin behar batzuk ere eskatzen ditu.

Haztegiaren kasuan, euskarri legal desberdinak aztertzen ari dira. Lau aukera esku artean dituzte, batetik kooperatiba bat sortu eta laborariak kooperatibako kide egitea, CAPE antzeko lan kontratu bat bideratzea, praktikaldiko lan kontratu bat egitea edo aldi baterako lan kontratu bat adostea. Momentu hauetan lau aukeren arteko azterketa batean murgilduta daude.

---

## **AZPIEGITUREN GARRANTZIA**

---

Europa mailan, lurra gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen da. Honekin batera gero eta ekoizpen proiektu txiki gutxiago daude. Belaunaldi berriak landa gunetik joaten ari dira, eta despopulazio honek ez dio zuzenean erreleboari bakarrik eragiten, tokiko kulturari, oinarritzko zerbitzuen eskuragarritasunari... Aldiz, instalatu nahian dabilen nekazari profil berriak ez du lur familiarrik, beraz autoritate lokalen interbentzioa ezinbesteko elementu bihurtzen da sarbidea errazteko orduan.

Errealitate honen aurrean, RETA proiektuak lur sailak jartzen ditu instalatu nahi dutenen esku, proiektuarekin hasi eta esperimentatzeko. Normalean, baratzezainen kasuan, 1-1,5ha lur sailak izaten dira, hala ere Katalunia eta Extremaduran martxan diren proiektuak abeltzaintzari lotuak dira, beraz Trebakuntza Gune bakoitzean beharrezko oinarrizko azpiegiturak oso desberdinak izan daiteke.

Haztegia, lursailen identifikazioa burutu ostean, Lorra elkartearen bitartez lursail bakoitzaren balorazio eta analisisian dihardu. Momentuz ez da lurrik, beraz planteamendua eskualde bakoitzean lursail bat errentan hartzea da.

Trebatu proiektuak mintegi funtzioa burutzen du lur faltaren arazoari irtenbidea aurkitzeko. Zentzu honetan, bi trebagune iraunkor ditu, instalatu nahia adierazten dutenak trebatzen egongo dira, baina gero beste nonbait instalatu beharko dira. Trebagune hauetako bat Euskal Hirigune Elkargoak ahalbidetutakoa da, baratzezaintzarako gunea. Beste gunea ardi/ahuntz hazkuntzarako da, eta jabe pribatu batek lagatakoa. Guneen kudeaketaz berriz Trebatu arduratzen da eta baita bertan suertatzen diren gastuez ere. Bi gune hauez gain, instalatu nahi duen nekazariak lurra eskaintzen dituen jabe batekin aurkitu bada, Trebatu akordioa formalizatzeko hiru aldean arteko dokumentu juridiko bat idatziko du. Beraz alderdi administratiboa bere gain hartzen du elkarteak.

Gaztenek-ek ere, programa integral bat den heinean, lurra eskuratzeko aukerak eskaintzen du, besteen artean lur bankuen bitartez. Eta lurraren eskuragarritasunari lotuta, landa eremua eta bizitza kalitatea hobetzeko neurriak ere barne biltzen ditu. Gaztenek programan parte hartu duten nekazariak adierazi dute zalantza ugari sortzen direla hasieran inbertsioak egiteko orduan, zenbaterainokoak egin, zertan gastatu, etab. Berriz erreferentzia falta aipatu da, eta Biolur eta Lurgintza bezalako elkarten funtzioa balioan jarri da. Sektorea gehiegi ezagutu gabe erabaki asko hartu beharra dago, eta ez da erraza suertatzen jarduerarako beharko diren azpiegiturak dimentsionatzea. Malgutasun baten beharra eta tokiko errealitatera egokitutako ikuspegia lantzearen beharra nabarmendu dira.

Doniene baserriaren kasuan, nahiz eta Gaztenek-en diru kopuru handiagoa eskatzeko aukera izan, eta beraz inbertsioetan buru belarri sartu, denborarekin eta poliki-poliki inbertsio txikiak egiteko aukeraren aldeko apustua egin zuten. Saltsa handiegietan sartu ordez, eta betiere atzera egiteko aukera mantenduz, hasierako fasea patxadaz hartu eta erabakiak ziurtasun batekin hartzeko beharra nabarmendu du.

Lurraren banaketa justu baten erronka modu desberdinetan landu daitekeela adierazi zuen Zoe-k. Kontuan hartu beharreko faktore anitz daude, hasi nekazari berrien profiletik, landa inguruko etxebizitzaren egoera, adineko herritarren bizi baldintzak, zaintza, etab. Adinekoek NPBa pentsioen ordezkoko gisa bizi dute, eta errealtate honek gazteei sarbidea mugatzen die. Beraz arazo honi erantzuteko, beharrezkoa da adinekoen zaintzari erreparatzea, ez da ekoizpenari lotutako arazo soil bat.

---

## **POLITIKA PUBLIKOEN ROLA**

---

NPBak hainbat erreforma izan ditu, betiere momentuko agenda politikoari lotuta. Lehenengo momentu klabea, 1992an kokatzen da, merkatua eta prezioak erregulatzetik liberalizazioan oinarritutako agenda bateranzko joera nabari da. 1999an jasangarritasunaren inguruko kezkak medio, NPBaren 2. zutabea garatzen da. 1. zutabeak laguntza zuzenak ematen baditu ere, 2. zutabeak lehen sektorea bere zentzurik zabalenean ulertzen du, eta landa garapena oinarri hartuta, nekazaritza jardueratik haratago bestelako sektoreak sustatzen dira, besteen artean landa turismoa. NPBaren beste momentu klabe bat 2003koa da, laguntzak lur kopuruaren arabera banatzen hasten direlako, lurraren gero eta kontzentrazio handiagoan, eta nekazal proiektu txikien desagerpenean eraginez. Neurri hauek zerikusia dute erreleborako aurkitzen ditugun arazoekin, laguntzek lurra saldu edo alokatzeko erabakietan zuzenean eragiten baitute. Beraz, nekazal jardueraren modernizatorako joera, eta ustiategiak handitzearen aldeko apustua bultzatzen da Europatik.

Gure lurraldean Gaztenek programak instalazio berriei laguntzak emateaz gain, bestelako neurriak ere barne biltzen ditu. Hasiera batean ikuspegi integralago batetik diseinatu zen programa, gazte berriari bere proiektua garatzen lagundu eta jarraipen bat emateko aholkularitza eskainiz, lurra eskuratzeko neurriak sustatuz, eta beste elementu batzuk ere jasotzen zituen, jende gaztea landa eremuan kokatzeko, landa eremuko bizitza kalitateari zegozkionak. Bestetik, lehen sektorearen inguruko errekonozimenduari zerikusia zuten beste neurri batzuk ere uztartzen zituen, komunikazio edo sentsibilizazio neurriak esaterako. Horrez gain, Gaztenek programak laguntzak emateko orduan, ekoizpen ereduarekin zerikusia duten bestelako irizpideak ere kontuan hartzen ditu. Zentzu honetan, 5 eta 10 puntu bitartean esleitzen ditu ekoizpen ekologiko zertifikatua, ekoizpen integratua, elikagaien eraldaketa, zirkuitu laburretan merkaturatzeko hautua, edo ureztatu beharreko labora estentsiboetan oinarritzen diren proiektuentzat.

Gaztenek programan parte hartu duen eta familiaz kanpoko erreleboa jaso duen esperientziaren arabera, programan sartzean sektorea guztiz ezagutu gabe diseinatzen da enpresa plana. Modu honetan, errealitatetik urruntzen den proiektua idazten da, UTA batera iritsi beharrekin gehiegi dimentsionatzen baita jarduera. Horrela, proiektua teoriatik praktikara jaisten denean lan karga izugarria nabari da, eta zaila suertatzen da proiektuaren iraunkortasuna bermatzea. Zoe-ren arabera, nekazari gazte askok diote, erreleboa finantzatzeko laguntzen logika NPBarekin parekatua dagoela, handira joanez, ahalik eta kreditu gehien lortzearen alde egiten dela, nahiz eta instalatutako gazteek beste ekoizpen eredu baten aldeko apustua egin nahi izan.

Aldi berean, kontuan hartu behar dugu, laguntza hauek ezinbestekoak direla ekoizpen proiektu txikien bizi iraupenerako. Zentzu honetan, beharrezkoa da kritikoki hausnartzea zenbateraino ahalbidetzen duen gaur egungo laguntzen banaketak elikadura sistema justu eta jasangarri baterako bidea. Beraz, politika publikoek baserritarren rola babestu, merkaturatze bide laburrak indartu, erosketa publikoa sustatu eta tokiko elikadura sistema egituratzeko instalazio berriak ahalbidetu beharko lituzkete. RETA proiektuak lurraldean kokatutako proposamen berritzaileagoen aldeko apustua egiten du. Horregatik, berrikuntza sozialetik politika publikoetan eragiteko solaskide eta bozgorailu izan asmo du.

---

## **GOBERNANTZA**

---

NPBaz gain, elikadura politikak bestelako begirada integralago batetik pentsatzeko gonbidapena luzatzen da. Baserritarren jarduera ez du NPBak bakarrik baldintzatzen, badira tokiko eragileak, komertzio txikiak esaterako, tokiko elikadura sisteman funtzio garrantzitsua betetzen dutenak. Zentzu honetan, politika publikoen inguruko erabakiak hartzen diren espazioetan baserritarrek eta tokiko eragileek duten errepresentazio falta nabarmendu nahi izan da. Beraz, bestelako gobernantza ereduaren garapena aldarrikatu da, parte hartzeko moduak aldatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna ahalbidetuko duten ereduak. Nekazaritza Politikatik, elikadura sistemako eragile anitzak kontuan hartuko dituen Elikadura Politika batetara salto egiteko beharra adierazi zuen Zoe Brent-ek.

Gobernantzari dagokionean, Gaztenek-en ahalegina Helburu Populazioa instalatzera doazen gazte hauetatik haratago kokatzea izan da. Zenbait erakundek paper klabea dutela ikusi da gazteak instalatzeko orduan, bai nekazaritza eskolek, LGEek, kudeaketa zentroek, sindikatuek, elementu klabe bezala ikusi dira kaptazio lanak eta aurrera ateratzen diren proiektuen

aholkularitza eta monitorizazio lanak egiteko. Erreleboa jasoko duten gazteei dagokionez, sektore kanpoko instalakuntza berriak ahalbidetzeaz gain, familia barneko baserritarrak ere identifikatzeko ahalegina egiten da ustiatuegien erreleboa bermatu ahal izateko.

Hala ere, beren bizi esperientzia kontatu diguten gazteek, inguruko babes falta adierazi dute behin eta berriz. Eskualde mailan ez ezik, udalerrietan ere proiektu amankomunak aurrera atera ahal izateko harremanik ez dela lantzen nabarmentzen da. Zentzu honetan, RETA proiektuak bere lehentasuna ematen dio proiektuen inguruan sortzen den gobernantza ereduari. Urkiola eta Lea Artibaiko LGE antolaketa eredu horren diseinuan dabil, nahiz eta elkarte den proiektuaren bultzada eta lidergoa emango duena, bestelako talde eragile bat ere sortu da, Bizkaiko Aldundia, Derioko Nekazal Eskola, sindikatuek, ENEEK, Hazi, Lorra, udal desberdinek eta beste LGEEK osatua. Gainera Bizkaiko Aldundiaren finantzaketa izango du prozesuak. Frantzia mailan ibilbide bat duen Trebatu proiektua, finantzaketa publikoaz gain, trebatzen diren laborarien ekarpenean eta elkarte osatzen duten beste kideek egin ahal duten lanean oinarritzen da. Finantzaketaz gain, tokiko eragileen babes eta kideztza izatea beharrezkotzat jotzen da Trebatu proiektutik, kasu honetan, Euskal Hirigune Elkargoaren aliantza ezinbestekotzat jo da. Gainontzean laborantza herrikoian trebatzeko tresna honetan 10 kidek parte hartzen dute; laborantza arloko 6 elkartek, laborantza formakuntza eskaintze duen elkarte batek, kontsumitzaileen beste elkarte batek, ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritzen den erakunde batek, eta Euskal Hirigune Elkargoak.

## AGURRA

Eskerrik asko jardunaldietan parte hartu duzuen norbanako eta erakunde guztiei. Nekazaritzaren erreleboa bermatzeko lanetan aurrera jarraitzeko bidean izango gaituzue, hortaz, harremanetan jarraituko dugu elkarrekin erronka honi aurre egiteko, Euskal Herrian Elikadura Sistema Jasangarri bat lortze aldera.

## AITORPENAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari eta Fit4Food2030 proiektu europarrari jardunaldi hauek aurrera eramateko finantziazioa emateagatik.

## TXOSTENAREN EGILEAK

Miren Saiz, Bizilur Elkartea: [euskalherria@bizilur.org](mailto:euskalherria@bizilur.org)

Aintzira Oñederra Aramendi, Euskal Herriko Unibertsitatea

Mirene Begiristain Zubillaga. Euskal Herriko Unibertsitatea:  
[mirene.begiristain@ehu.eus](mailto:mirene.begiristain@ehu.eus)

Goiuri Alberdi Aresti, Euskal Herriko Unibertsitatea: [goiuri.alberdi@ehu.eus](mailto:goiuri.alberdi@ehu.eus)